

El Salvadorreko Elizak militarrek salatu ditu

SAN SALVADOR

El Salvadorreko Armada akusatu du bertako Eliza Katolikoak, urtarri-lak 22 izandako hilketa baten erru-dun bezala. San Salvador hiriburuko iparraldean hamabost nekazari hil zituzten tiroka pasa den urtarri-lak 22. Hildako gehienak familia berekoak ziren.

Agintariek banatu zituzten lehen berrietan zioetenez, familia arteko «iskanbila» zegoen hilketaren mui-nean. Hala ere, argi zegoen lehen unetik Armadak erabat kontrolatu-tako eskualde batean gertatu zela sarraskia. Arturo Rivera San Salva-dorreko artzapezpikuak igandean esan zuenez, «Elizak bildatuako fro-ga guztiek bide bakarrera garama-tzate, erantzuleak Infanteriako Lehen Brigadako soldaduak izan di-rela esatera».

El Salvadorreko fiskal nagusiak, Elizaren salaketak ezagutu eta gero erabaki du soilik kasuan parte har-tzea. Edwin Bonilla fiskalak artza-pezpikua eta bere laguntzailea, Gre-gorio Rosa apezpikua, deitu ditu de-klaratzera baina oraingoz ez diote erantzun. Aldi berean, Brigada ho-rrin irteera-sarreraren liburua eskatu dio fiskalak Rene Ponce Defentsa ministroari.

Fiskalak esan duenez, hala ere, «ezin zaio hilketa inori leporatu oraindik, ikerketak ez bait dira amaitu». Artzapezpikuaren bulego-ko giza eskubideen aldeko erakunde batek salatu duenez, «inpunitate mi-litarraren» beste kasu argi bat da hau.

EEBB-KO Aldi berean,
HELIKOPTEROAREN El Salvado-
AUZIA rreko Eliza-
ren ordezkariak FMLN gerrilarekin bildu dira eta urtarri-lak 2 EEBBko helikoptero bat lurrera bota zuten gerrilariak elkarriketatu dituzte. Helikopteroa lurrera bota eta hiru militar iparramerikarrak zaurituta zeudela hil zituzten gerrilariak Lo-lotique herrian. FMLNk ekintza hau hilketatzat jo du, eta beren taldeki-deak atxilotu dituzte.

'Ipar Amerikako merkatu librea' osatzeko negoziaketak

OTTAWA

EEBBek, Mexikok eta Canadak Ipar Amerikako Merkatu Librearen Erakundea osatzeko egingo dituzten elkarriketak eta negoziazioak «ber-dintasun mailan eta hiru aldean ar-tean» gauzatuko dira, John Crosbie Canadako Merkatal ministrariak esan duen moduan. Hiru estatuen ar-teko akordio ekonomikoa urte honen bukaerarako prest izan nahi dute ekonomia arloko arduradunek. 'Ipar Amerikako Merkatu Librea' 350 milioi kontsumidoreren esparruan hedatuko da, EEEK bere baitan har-tzen duen biztanlegoaren tamaina gaintuz. Elkartearen Barne Pro-dukto Gordina 6 bilioi dolarretakoa izango da, esan du Crosbie-ek Otta-wa-n eskaini duen prentsaurrean.



Any-Nya tribuko gerrilari errebeldeak, Khartum-eko gobernuaren kontrakoak.

Sudan estatu federal bihurtzeak gerra zibila eteten lagun dezake

Hegoaldeko kristauak iparraldeko musulmanekin borrokatu dira 1983tik

Sudan-eko gerra zibila amaitzeko bidea izan daiteke nazioa estatu federal bihurtzea. Omar el Bexir lehendakariak iragarri du neurria. 1983an Sudan iparralde eta hegoaldearen artean 1983an hasi zen gerra zibila. Hegoaldean talde beltz animista eta kristauak dira, baina botere iparraldeko arabiar musulmanek daukate.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

Bexir generalak iragarri duenez, Sudan estatu federala bilakatuko da, eta gaurko bederatzi probintziak bederatzi eskualde federatutan bilaka-tuko dira. Khartum hiriburuko go-bernu zentralak izendatuko ditu es-kualde bakoitzeko gobernadore eta ministroak, baina bakarrik eskualde

musulmanetan aplikatuko da lege islamikoa, Xaria delakoa, gerra zibi-la piztu zuen arrazoi-tako bat.

Sudaneko 24 milioi biztanleetarik %10a kristauak dira (2.500.000 la-gun). eta beste %17a (lau milioi) er-lizio tribaletakoa. Iparraldean ara-biarrak dira nagusi, eta beste etnia musulman batzuk ere badaude: nu-biarrak eta bedjak, adibidez. He-goaldean, puzzle etnikoa dago: hiz-kuntza nilotiko eta sudaniar taldeetako hogeitik gora herri (Nuer, Bari, Zande, Dinka...), asko kristauak bai-na beste hainbat bizimodu tribale-koak.

**ZAZPI
URTEKO
GERRA**

Gerra zibila 1983ko irai-lean hasi zen Gaafar el Numeiri orduko lehen-dakariak Sudan osoan Xaria lege islamikoa ezarri zuenean. Armadako general bat, John Garang kristaua, matxinatu egin zen eta Sudaneko

Askapen Armada Popularra sortu zuen. Numeiri boteretik bota zuen Sadi el Mahdik 1985ean, eta bakea proposatu zion Garang errebeldeari baina honek ez zuen onartu.

1989an, Omar el Bexirrek hartu zuen boterea estatu kolpe batez eta negoziaketa ahaleginetan hasi zen. Bake ahalegin hauek Zaireko man-dataria den Mobutu Sese Sekoren bitartez bideratu ditu Khartumeko gobernuak.

Gerrak miseria ekarri du Sudane-ra, batez ere hegoaldera. Milioi erdi lagunetik gora hil dela kalkulatu izan da. Beste bi milioi hegoaldearrek ihes egin du gerratik eta hirietan edo atzerrian errefuxiatu da. Gosetea ere hedatu da Sudanera gerraren ondo-rioz, eta estatu osoaren azpiegitura ekonomikoa suntsituta geratu da.

Azken hilabeteetan John Garan-gen indarrek zenbait eskualde kon-kistatu dituzte Sudan hegoaldean.


Funtzionari ohiari errebolta kargua leporatu diote La Habanako epaiketan

LA HABANA

Samuel Martínez Lara Gobernu-ko funtzionari ohiaren kontrako epai-keta asteartean hasi zen La Habanan. Akusatua Cubako Giza Eskubideen aldeko Partiduko idazkari nagusia da. Erakunde politiko hau legez kan-po dago eta Martínez Larari errebolta kargua leporatu diote.

Martínez Larak 11 hilabete eman ditu atxiloturik epaiketa egin arte. 38 urteko gizon honek beste zigor batzu jaso ditu, lehenago ere. Gartzelaldi hauek 'legez kanpoko irteera' eta 'baimenik gabeko manifestazio eta bilerak' egin izanagatik ezarri ziz-kioten. Martínez Lara 'agiri klan-destinoak' izateagatik ere hartu zuen zigorra beste garai batetan.

Epai-ketaren lehen egunean fiska-lak 5 urteko zigorra eskatu zuen par-tidu ilegalaren idazkariarentzat, «Cubako Iraultzaren kontrako agiri iraingarri eta atzerakoiak egin izana-



Samuel Martinez Lararen kontrako epaiketaren une bat. LESBIA JORGE / REUTERS

gatik». Fiskalak «iraultza sozialista eta botereaz jabetu nahi izatea» ere leporatu dio Martínez Larari.

Akusatuak kargu guzti hauek errefusatu egin zituen bere agerral-dian. Larak «zenbait huts eta jarrera

oker» izan zituela onartu zuen baina ez zuen bere burua «atzerakoitzat eta iraultzaren kontrakotzat jo, ezta ko-munistatzat ere». Martínez Larak ukatu egin zuen Fidel Castro-ren aurkako konplotean ari izana.

LABURREAN

BUSH: hobe SESB bakarra eta ez hogeitabost

Estatu Batuek ez dituzte Baltikoko errepublika soviatarrekin harreman diplomatikoak izango, George Bush lehendakari iparramerikarrak esan duenez. «Ez ditugu beste hogeitabost iniziatiba diplomatiko irekiko orain, estatu bakarrekin tratatzeko», esan zuen Bushek Soviet Batasunean piztu diren independentzia asmo ugariei buruz. «Errepublika baltikoek beren bidea hartzeko daukadan gogoarekin» ez du zerikusitik prezisatu zuen ondoren ●

GORBATXOVek Lituanian erreferenduma indargabetu du

Mikhail Gorbaxov lehendakari soviatarrek legez kanpo utzi du Lituaniako agintariek konbokatutako nahi duten independentzia erreferenduma. Bozketa hilaren 18rako iragarri zuten Baltikoko errepublika honetako agintari nazionalistek. «Erreferendumak ez du funtsa legalik», esan zuen Gorbaxov bere dekretu berria esplikatzera. Dekretu bidez ari da gobernatzen Sobietar Batasuneko lehendakaria ●

APEZPIKU katoliko bortxatzaile bat Canadan

Canadako apezpiku katoliko bat, Hubert Patrick O'Connor, bi emakume bortxatzeaz salatu dute. Prince George-ko apezpikuk duela hogeitau urte baino gehiago egin zituen ustez delitu hauek. Ikasle indiarrentzako barnetegi batean zeuden gazteekin zenbait delitu sexualez akusatu dituzte zenbait elizgizon, baina O'Connor apezpikua da jerarkia gorenenekoa. ●

GREZIAN hegazkin militar bat desagertu da

53 militar zeramatzan Hercules C-130 hegazkin militar greziar bat galdu da Grezian, seguruenik Egeo itsasoko uretan. Asteartean desagertu zen aparailua, eta atzo bere bila zebiltzan oraindik agintariak. Hegazkina Atenas-eko aireportutik irten zen eta Grezia iparraldeko Nea Agialo aireporturantz abiatu zen. Evvia irlaren kostaldean desagertu zela uste dute agintariek. ●